

# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko martxoaren 7a

23 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

#### **Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

—Vianako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

—Mendabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (16. or.).

**G Saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

## Vianako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 19an eginitako bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Vianako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, argitaratu dadila agintzea.

Iruñean, 2001eko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### Vianako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

#### AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (3. or.).
  - IV.1. 2000ko aurrekontuaren likidazioa (4. or.)
  - IV.2. 2000ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (4. or.)
  - IV.3. Legezketasuna (4. or.)
  - IV.4. 2000ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa (4. or.)
- V. Finantzen egoera-orriak (4. or.).
- VI. Vianako Udalari buruzko iruzkin, ondorio eta gomendioak (7. or.).
  - VI.1. 2000ko aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (7. or.).
  - VI.2. 2000ko abenduaren 31ko finantza-egoera (9. or.).
  - VI.3. Gorabeherak (10. or.).
  - VI.4. Administrazio-kontratazio (10. or.).

VI.5. Bestelako kudeaketa-gomendioak (12. or.).

VI.6. Hirigintza (13. or.).

VI.7. Euroa sartzeari buruzko gogoetak (13. or.).

Vianako Udalak behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioak (13. or.).

Vianako Udalak aurkezturiko alegazioen erantzuna (13. or.).

I. eranskina: Vianako Udalaren organigrama, 2000ko abenduaren 31ko plantilla organikoaren arabera (14. or.).

II. Eranskina: Erabilitako adierazleen definizioa (15. or.).

#### I. SARRERA

Viana Estellerrian dago eta, 2000ko abenduaren 31n 3.641 biztanle dauzka, gutxi gorabehera.

Bere lana garatzeko, Udalak "Viana Hiriko Zaharrentzako Egoitzarako Udal Patronatua" izeneko erakunde autonomoa sortu zuen 1985eko azaroaren 29an; hari esleitu zitzaion Zaharrentzako Eskualdeko Egoitzaren kudeaketa. Gero, 2000ko maiatzaren 20ko Osoko Bilkuran, "Nuestra Señora de la Gracia Fundazioa" sortu zuen; izaera publiko-pribatuko fundazio bat da, ondare autonomoa duena eta irabazi asmorik gabekoa, hain zuzen ere zaharrentzako egoitza kudeatu eta mantentzeko sortua.

Hona Fundazio horren 2000ko ekitaldiko datu-rik aipagarrienak:

(pezetak, milakotan)

Entitatea	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko eskubideak
Fundazioa	73.442	73.628

Udalak ondoko mankomunitate eta udal-mul-tzoetan hartzen du parte:

- Jurramendiko Ur Mankomunitatea.
- Estellerriko Turismo Partzuergoa.

Ondoko taulan agertzen diren zenbatekoak izan dira 2000n Udalak izandako aipagarrienak:

(pezetak, milakotan)

Entitatea	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, abenduaren 31n
Udala	549.217	461.941	22

## II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztai-laren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbarari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, fiskaliza-tu egin ditugu bai Vianako Udaleko kudeaketa ekonomiko-finantzarioa bai udal horren nahiz bere erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko gastu eta diru sarreren aurrekontuen exekuzioa.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juri-dikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aipatutako legeek, Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langi-leen Estatutuak, administrazio-kontratazioari eta hirigintza-kudeaketari buruzko araudiak eta Nafarroako toki entitatei oro har aplikatzekoa den gai-nontzeko araudiak.

Kontabilitate eta aurrekontu arloan, araubide juridikoa honako hauetan ezarritakoa da: 270, 271 eta 272 zenbakiak dauzkaten foru dekretuak, guz-tiak 1998ko irailaren 21ekoak, zeinak aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta Nafarroako Toki Administrazioarako kontabilitateari buruzkoak baitira. Horien aplikazioa nahitaezkoa da 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Txostenaren helburua honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea da:

a) Vianako Udalaren eta bere erakunde auto-nomoen 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren gara-pena eta betetzea.

b) 2000-12-31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioaren legez-kotasun printzipioarekiko egokitzapena.

d) Udalaren finantza-egoera 2000ko abenduaren 31n.

## III. NORAINOKOA

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa-programari jarraikiz, Vianako Udalaren (aurrerantzean, "Udala") eta bere erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka, Toki kontabilitate publiko-aren Plan Orokorrari jarraikiz. Plan hori egokitu da irailaren 21eko 271/1998 Foru Dekretura –Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontu egituraren alorrean garatzen duen horretara–, eta Nafarroako toki administrazioarako kontabilitate jarraibide orokorra onetsi zuen irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekre-tura.

Eginiko lanaren aztergai nagusia dirusarrerren eta gastuen kapitulu ekonomikoen eta ondare-masen berrikuspenean izan da, eta antolaketa, kon-tabilitate eta barne kontrolari dagozkien puntuak aztertu ditugu.

Hirigintza arloari dagokionez, planeamendua-ren betetzeari buruzko ikuskapen bat egin dugu, eta haren aldaketak eta aurreikuspenen betetze-maila aztertu ditugu.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Orga-no Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio printzipioei eta araei jarraituz eta, bal-dintzen arabera, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz egin dugu lana.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen antolaketa, barne kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditu-gun iruzkin eta gomendioak bildu ditu txostenak.

Azterketa lana 2000ko maiatzean egin dugu.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egite-ko eman diguten laguntzarengatik.

## IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Vianako Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko finantzen egoera-orriak aztertu ditugu. Udalaren ardurapean eginak dira, eta txosten honetako V. atalean jaso ditugu, laburbilduta.

Gure berrikuspenean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatze-ko Batzordeak sektore publikoaren auditoretzara-ko onetsiriko arau eta prozedurak aplikatu ditugu.

Eginiko berrikuspenean oinarrituz, hona gure iritzia:

**IV.1. 2000KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI DAGOKIONEZ**

Honekin batera doan 2000ko aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orriak egoki agertzen du fiskalizaturiko ekitaldian Udalak eginiko eragiketa-multzoa.

**IV.2. 2000KO ABENDUAREN 31KO ONDARE-EGOERAREN AGERPENA**

2000ko abenduaren 31ko egoera-balantzeak nahiko ongi agertzen du Udalaren ondare-egoera.

**IV.3. LEGEZKOTASUNA**

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezketasun printzipioari jarraikiz egin da.

**IV.4. 2000KO ABENDUAREN 31KO EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA**

Vianako Udalak 2000ko abenduaren 31n agertzen duen finantza-egoerari buruz aipatzekoa da saneatua dela: 97 milioi pezetako diruzaintza-gerakina du, ehuneko 36ko aurrezki gordina du eta epe luzeko zorra 8 milioi pezetakoa da.

Laburbilduz, eta **ondorio orokor** gisa, hona gure gomendioak:

- Aurrekontu-kudeaketako barne kontroleko prozedurak indartu eta osatzea, batez ere erosketen arloan.
- Sektore publikoaren kontabilitateari buruzko Plan Orokorrak ezartzen duen urteko oroit-idazkia egitea.

**V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK**

Jarraian, udalaren eta bere erakunde autonomoen finantzen egoera-orriak azalduko ditugu. Azalpena eroso izan dadin, aipamena honako hauetara mugatuko dugu:

- Udalaren gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera.
- Udalaren gastuen aurrekontuaren likidazioa, sailkapen ekonomiko-funtzionalaren arabera.
- Udalaren 2000ko abenduaren 31ko egoera-balantzea.
- Udalaren 2000ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina.

**Vianako Udala 2000****Dirusarreraren aurrekontu betetzea**

	Hasierako aurre- ikuspena	Alda- ketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Kobratuta	Kobra- tzeke	Betetzearen %	Aitorturiko guztizko- aren %
	(Pezetak, milakotan)			(Euroak, milakotan)		(Pezetak, milakotan)			
1- Zuzeneko zergak	81.057	-	81.057	93.302	561	86.725	6.577	115%	20%
2- Zeharkako zergak	46.448	-	46.448	63.831	384	54.245	9.586	137%	14%
3- Tasak eta bestelako dirusarrerak	23.657	-	23.657	40.661	244	36.727	3.934	172%	9%
4- Transferentzia arruntak	126.457	-	126.457	123.933	745	120.753	3.180	98%	27%
5- Inbertsio errealeen besterentzea	25.488	-	25.488	34.931	210	23.584	11.347	137%	7%
6- Ondare dirusarrerak	56.360	-	56.360	49.939	300	49.939	-	89%	11%
7- Kapital transferentziak	220.881	(29.651)	191.230	55.344	333	31.332	24.012	29%	12%
8- Finantza-aktiboaren aldaketa	-	202.080	202.080	-	-	-	-	-	-
9- Finantza-pasiboaren aldaketa	18.200	278.075	296.275	-	-	-	-	-	-
<b>Dirusarrerak, guztira</b>	<b>598.548</b>	<b>450.504</b>	<b>1.049.052</b>	<b>461.941</b>	<b>2.777</b>	<b>403.305</b>	<b>58.636</b>	<b>44%</b>	<b>100%</b>

## Gastuen aurrekontu betetzea

	Hasierako aurre- ikuspena	Alda- ketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko oblitgazioak	Ordainduta	Ordain-Betetzearen tzeke	%	Aitorturiko gutzizko- aren %
	(Pezetak, milakotan)			(Euroak, milakotan)					
1- Langileen ordainsariak	124.875	-	124.875	114.640	689	114.629	11	92%	21%
2- Ondasun arrunt. eta zerb. eros	104.942	5.289	110.231	105.727	635	99.312	6.415	96%	19%
3- Korrituak	17.947	-	17.947	197	1	197	-	1%	-
4- Transferentzia arruntak	7.841	(163)	7.678	7.094	43	7.037	57	92%	1%
6- Inbertsio errealak	312.496	445.378	757.874	305.393	1.835	247.682	57.711	40%	56%
9- Finantza-pasiboen aldaketa	30.447	-	30.447	16.166	97	16.166	-	53%	3%
Gastuak, guztira	598.548	450.504	1.049.052	549.217	3.300	485.023	64.194	52%	100%

## Vianako Udala

2000ko aurrekontu betetzea, kode funtzional/ekonomikoaren ikuspegitik (pezetak, milakotan)

Funtzio- ren nala	Deskribapenagastuak eta zerbitzuak	Ondasun		Finantza- gastuak	Transferentzia arruntak	Inbertsio errealak	Aitorturiko Finantza-betebeharrak, guztizkoa-		Ehunekoa, guztizko- gainean
		Langileria- arruntak	arruntak				pasiboak	guztira	
01	Finantza-zama eta -administrazioa	-	-	197	-	-	16.166	16.363	3%
11	Gobernu-organoak	2.427	3.108	-	-	-	-	5.535	1%
12	Administrazio orokorra	34.470	12.804	-	1.214	2.499	-	50.987	9%
22	Segurtasun eta babes zibila	6.423	1.736	-	-	1.490	-	9.649	2%
31	Segurtasun eta babes soziala	51.425	2.543	-	-	24	-	53.992	10%
32	Gizarte-sustapena	-	1.688	-	-	-	-	1.688	-
41	Osasuna	-	34	-	-	-	-	34	-
42	Hezkuntza	2.869	7.116	-	-	-	-	9.985	2%
43	Hirigintza	11.013	28.124	-	520	27.083	-	66.740	12%
44	Komunitate-ongizatea	-	590	-	-	23.794	-	24.384	4%
45	Kultura eta kirola	4.060	43.518	-	2.441	157.083	-	207.102	38%
46	Beste. komunitate- eta gizarte-zerb.	-	-	-	672	-	-	672	-
53	Oinarrizko azpiegiturak eta garraioak	-	940	-	724	-	-	1.664	-
56	Industria sektoreko oin. azp. eta garraioak	-	-	-	-	80.107	-	80.107	15%
58	Herri ondasun eta -aprobetxamenduak	-	315	-	-	11.654	-	11.969	2%
61	Araupetze ekonomikoa	-	2.134	-	-	-	-	2.134	1%
62	Merkataritzako araupetzea	-	-	-	50	-	-	50	-
75	Turismoa	1.953	1.077	-	1.473	1.659	-	6.162	1%

## Vianako Udala

## 2000-12-31ko balantzea (pezetak, milakotan)

AKTIBOA	Kopurua, milakotan		PASIBOA	Kopurua, milakotan	
	pezetak	euroak		pezetak	euroak
IBILGETUA	1.460.427	8.778	ONDAREA	1.349.583	8.111
Ibilgegu materiala	1.156.439	6.951	Ondarea	1.497.823	9.002
Lurrak eta ondasun naturalak	106.643	641	Atxikitako ondarea	(322.715)	(1.939)
Eraikinak	909.428	5.466	Erabilera orokorrerako ondarea	(292.640)	(1.759)
Makineria, instalazioak eta tresneria	23.646	142	Atxikitako ondarea	58.452	351
Garraio-elementuak	1.490	9	Lagatako ondarea	17.179	103
Altzariak	12.465	75	Aplikatzeke dauden emaitzak	391.484	2.353
Informazio-prozesuetarako ekipoak	6.014	36			
Bestelako ibilgetu	2.523	15			
Instalazio konplexu espezializatuak	4.260	26	KAPITAL DIRULAGUNTZAK	41.273	249
Bideango ibilgetua	89.970	541	Jasotako kapital dirulaguntzak	41.273	249
Ibilgetu ez-materiala	16.119	97	EPE LUZEKO ZORRAK	63.114	379
Ibilgetu ez-materiala	2.063	12	Epe luzeko maileguak	63.114	379
Bestelako ibilgetu ez-materiala	14.056	85			
			EPE LABURREKO ZORRAK	97.326	585
Erabilera orokorreko ondasun eta inbertsioak	287.819	1.730	Aitorturiko betebeharrengatik hartzek.	66.722	401
Lurrak eta ondasun naturalak	600	4	Agindutako ordainketengatik hartzek.	46	-
Erabilera orok. azpiegitura eta ondasunak	25.537	153	Dirusarrerak itzultzeagatik hartzekodunak	37	-
Herri ondasunetako inbertsioak	261.682	1.573	Ente pub. kobratzeko dituzten eskubideak	377	2
			Ente pub. likidatzeko dauzkaten eskubideak	40	-
Finantza-ibilgetua	50	-	Entitate publikoak	9.071	55
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak	50	-	Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzek.	21.033	127
ZORDUNAK	106.046	637	APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK	356	2
Aitorturiko eskubideengatik zordunak	76.257	458	Aplikatzeke dauden dirusarrerak	205	1
Beste erak. pub. batzuetako aitort. eskub. zorrak	377	2	Aplikatzeke dauden bestelako kontusailak	151	1
Entitate publikoak	26.218	158			
Aurrekontuz kanpoko bestelako zordunak	3.194	19	EMAITZAK	213.213	1.281
KONTU FINANTZARIOAK	198.392	1.192			
Aplikatzeke dauden kontusailak	250	2			
Bankuak eta kreditu-erakundeak	198.142	1.191			
ORDENA-KONTUAK	81.438	489	ORDENA-KONTUAK	81.438	489
Gordailuko baloreak	81.438	489	Gordailuko baloreak	81.438	489
AKTIBOA, GUZTIRA	1.846.303	11.096	PASIBOA, GUZTIRA	1.846.303	11.096

## Vianako Udala

Diruzaintza-gerakin egoera, 2000-12-31n (pezetak, milakotan)

		Zenbatekoak
1 (+) Ekitaldi bukaeran kobratzeke dauden zordunak		87.692
Diru-sarrerren aurrekontukoak. Aurrekontu indarduna	58.636	
Diru-sarrerren aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	17.621	
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoa	29.411	
Ken kobratzen zailak diren saldoak	(17.976)	
2 (-) Ekitaldi bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak	(189.010)	
Gastu-aurrekontukoak. Aurrekontu indarduna	(104.022)	(64.194)
Gastu-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	(2.574)	
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoa	(30.144)	
Diru-sarrerren-aurrekontukoak	(37)	
Kirol instalazioetako BEZaren finantzaketa	(92.061)	
3 (+) Ekitaldiaren bukaeran diruzaintzan diren funts likidoak		198.142
4 Finantziario atxikia duten gastuei atxikitako diruzaintza-gerakina		12.767
6 Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina (1 + 2 + 3 - 4)		84.057
Diruzaintza-gerakina, guztira		96.824

**VI. VIANAKO UDALARI BURUZKO IRUZKIN, ONDORIO ETA GOMENDIOAK****VI.1 2000ko AURREKONTUAREN BETETZE-ARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK**

• Gastuen eta dirusarrerren 2000ko aurrekontuan 599 milioi pezetako hasierako kredituak daude. Hasierako aurreikuspen horiek hainbat aurrekontu-aldaketa jasan dituzte gastu eta diru-sarreretan. Dirusarrerei dagozkienak, funtsean, diruzaintzako gerakinetik 202 milioi gehitzea eta kirol instalazioetako inbertsioak finantzatzeko maillegu bateko 278 milioi pezeta dira. Gastuen aurrekontuko aldaketen ondorioz, inbertsio errealerako 445 milioi gehiagoko kreditua ezarri zen.

• Behin betiko aurreikuspenek edo aurrekontu bateratuak, horrenbestez, 1.049 milioi pezeta egiten du gastuetan eta dirusarreretan.

• Aitorturiko obligazioek 549 milioi pezeta egiten dute, eta ehuneko 52ko betetze-maila dute; hori azaltzeko, kontuan hartu behar da, funtsean, inbertsio errearen kapituluaren betetze maila txikia –ehuneko 40– izan dela; bestela esanda, aurreikusitakoak baino 452 milioi pezeta gutxiago erabili dira.

Alde hori zor zaio, batez ere, 2000ko aurrekontuan 458 milioiko gastua jasotzeko kirol instalazioak egiteko; inbertsio horrengatik 2000ko abendua-

ren 31n 157 milioi pezetako obligazioak baizik ez da aitortu.

Betetze maila eskas hori, funtsean, futbol zelaiak, aldagelak eta eraikin soziala eta udal igerilekuak eraikitzeke obrak adjudikatzerakoan gertatu den atzerapenari zor zaio, hain zuzen ere hasieran adjudikazio-hartzaile suertatu ziren enpresen kaudimen arazoengatik. Bi obra horiek 2001ean oraindik ere egiten ari dira.

Halaber, 2000ko aurrekontuek kaleetako zoladura jartzeko lanak jaso zituzten -61 milioi pezeta. Lan horiek, ordea, Jurramendiko Ur Mankomunitatea ari da zuzenean egiten.

Ehunekoetan, honela xehekatzen dira:

Gastuak	Ehunekoa
Funtzionamendua	41
Inbertsioa	56
Finantza-zama	3
Guztira	100

Ikus daitekeenez, gastu-elementurik garrantzitsuenak inbertsio errearen gastuei –kirol instalazioak eta industrialdea eraikitzeke obren ondorioz– eta funtzionamendu gastuei dagozkienak dira; azken atal horretan, langileen lansariak dira aipatu beharrekoak, ehuneko 21 egiten baitute.

Langileez denaz bezainbatean, 2000ko abenduaren 31n 22 langile ziren Udalean zihardutenak. Hona:

Izaera	Kopurua
Funtzionarioak	9
Lan-kontratadun finkoak	7
Behin-behinekoak eta programak	6
<b>Guztira</b>	<b>22</b>

Administrazio eta kontabilitatearen arloan 7 langile ari dira lanean: idazkari bat, kontu-hartzaile bat, bi administrari ofizial eta zerbitzu anitzetako enplegatu bat.

• Aitorturiko eskubideei dagokienez, 462 milioi pezetakoak dira. Betetze-maila ehuneko 44koa da, eta, funtsean, horren azalpena hauxe da: kapital transferentziei buruzko kapituluaren betetze-maila –aurreikusitako zenbatekoa, 191 milioi pezeta; aitorturiko eskubideen zenbatekoa, 55 milioi pezeta; hau da, betetze-maila ehuneko 29koa da– eta diruzaintza gerakinaren eta banku entitateekin hartutako maileguen bitartez -202 eta 278 milioi, hurrenez hurren- finantzatutako aurrekontu aldaketak. Dirusarreraren aurrekontuaren betetze maila eskas hori lehen komentatu dugun inbertsio errealean kapituluaren desbideraketei zor zaie.

Dirusarreraren osaera, ehunekoetan, hauxe da:

Dirusarrerak	Ehunekoak
Tributu bidezkoak	43
Transferentzien bidezkoak	39
Ondarearen ondoriozkoak	18
<b>Guztira</b>	<b>100</b>

Hau da, 2000ko aurrekontuko finantza-iturri nagusia tributu bidezko dirusarrerek osaturikoa da: aitorturiko 100 pezeta bakoitzeko, 43 pezeta finantza-iturri horretatik heltzen dira. Transferentzien bidezko dirusarrerek, berriz, ehuneko 39 egiten dute.

Ondoko taulan agertzen dira tributu-figura nagusiak eta horiek 2000n daukaten zenbateko aitortua (pezetak, milioitan):

Tributu-figura	Zenbatekoa
Zuzeneko zergak	
Hirilur kontribuzioa	42
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	29
Lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	2

Ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga	20
Zeharkako zergak	
Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga	64

Aipatzekoa da eraikin, instalazio eta obren gaineko zergaren –64 milioi pezeta– eta hiri kontribuzioen –42 milioi pezeta– garrantzi berezia, gainontzeko tributu-figurena baino handiagoa baita, alde handiz.

Udalak ordainarazitako zergei dagokienez, jarraian agertzen da, zerga-moten arabera, zein diren Udalak aplikaturiko tarifak, Nafarroako toki ogasunei buruzko Foru Legeak baimentzen dituen gehieneko kopuruekin alderatuta:

Tributu-figura	Udala	Ehunekoak/Indizea
		Toki Ogasunei buruzko Legea <sup>(1)</sup>
Hirilur kontribuzioa	0,271	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,22-1,24	1 - 1,4
Lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	10,3	8 - 20
5 urte bitartean	2,2	2,2 - 3,3
10 urte bitartean	2,2	2,1 - 3,2
15 urte bitartean	2,2	2,0 - 3,1
20 urte bitartean	2,2	2,0 - 3,1
Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga	3,54	2 - 5

(1) 2000rako indarra duten legeen arabera

Udalak ez ditu ordainarazten luxuzko gastuen gaineko zergak, ezta etxebizitza hutsen gainekoak ere; izan ere, gaur egungo legeriaren arabera, horiek aukerakoak dira toki entitatearentzat.

• 2000ko betetze-egoerak 87 milioi pezetako aurrekontu-defizita agertzen du, obligazioen eta aitorturiko eskubideen arteko aldearen ondorioz. Saldo horri finantzaketa-desbiderapenen eta gastuak 1998ko diruzaintzako gerakin likidoa erabiliz finantzatzearen ondorioz egin beharreko doikuntzak egiten baldin bazaizkio, 2000ko ekitaldiko aurrekontu-emaizta 97 milioi pezetako superabite-raino igotzen da.

• 2000ko abenduaren 31n ordaintzeke dauden kopuruak –gastuen erresultak– 67 milioi pezetakoak dira, eta, horietatik, 3 milioi pezeta aurreko ekitaldietatik datoz. Kobratzeke dauden kopuruek –dirusarreraren erresultak– guztira 76 milioi pezetako zenbatekoa egiten dute, eta ehuneko 24ren jatorria aurreragoko ekitaldietan dago.

• 2000ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina 97 milioi pezetakoa da, eta honako hauen



emaitza da: ordaintzeke dauden 88 milioi pezetako eskubideak, kobratzeke dauden 189 milioi pezetako obligazioak eta 198 milioi pezetako fondo likidoak. 18 milioi pezeta kobratzen zaitzat jotzen dira; guztiak aurreko ekitaldietatik daude kobratzeko.

Udalak 2000ko abenduaren 31 ordaintzeke dauden hartzekoduntzat hartu ditu, diruzaintza gerakina kalkulatzeko, kirol instalazioak eraikitze-ko obretan jasanarazitako BEZari dagozkion 92 milioi pezetako kopurua.

Azpirarratzekoa da 97 milioi pezetako diruzaintza gerakina honela banatuta dagoela: finantzaketa atxikia duten gastuei atxikitako gerakina, 13 milioi pezetakoa, eta gastu orokorre atxikitako gerakina, 84 milioi pezetakoa.

• Azkenik, hurrengo taulan erakusten da, ehunekotan, 2000ko eta 1998ko gastu-aurrekontuaren betetzea, eginkizunen arabera xehekatu:

Deskribapena	Ehunekoak
Finantza-zama eta -administrazioa	3
Gobernu organoak	1
Administrazio orokorra	9
Segurtasun eta babes zibila	2
Segurtasun eta babes soziala	10
Hezkuntza	2
Etxebizitza eta hirigintza	12
Komunitate-ongizatea	4
Kultura eta kirola	38
Industria sektoreko azpiegiturak	15
Ondasun eta aprobetxamendu komunalak	2
Araubide ekonomikoa	1
Turismoa	1
<b>Guztira</b>	<b>100</b>

Datu horiei buruzko azterketatik, azpirarratzekoa da Udalak 2000rako aurreikusitako gastuaren ehuneko 75 etxebizitza eta hirigintza, kultura eta kirola, industria sektoreko azpiegiturak eta segurtasun eta gizarte babesa arlokoak direla.

Kultura eta kirolaren kapituluak duen garrantzi handia neurri handi batean Udalak 2000ko ekitaldian kirol instalazioak eraiki izanari zor zaio.

## VI.2 2000KO ABENDUAREN 31KO FINANTZA-EGOERA.

2000n, Udalak honako ratio edo adierazleak dauzka, 1999ko datuekin konparatuta:

Adierazleak	2000 <sup>(1)</sup>	1999 <sup>(2)</sup>
Aurrekontu-superabita (defizita) (pezetak, milioitan)	(87)	171
Dirusarrerak biztanle bakoitzeko (pezetatan)	126.872	174.478
Gastuak biztanle bakoitzeko (pezetatan)	150.842	124.462
Finantza-zama biztanle bakoitzeko (pezetatan)	4.494	251
Tributuen bidezko dirusarrerak biztanle bakoitzeko(pezetatan)	54.324	39.925
Kobrantez betetzea (ehunekoetan)	87	88
Ordainketen betetzea (ehunekoetan)	88	81
Zorpetze-maila (ehunekoetan)	5	-
Zorpetze-muga (ehunekoetan)	36	28
Aurrezki garbia (ehunekoetan)	32	27
Langileria-indizea (ehunekoetan)	21	26
Inbertsio-indizea (ehunekoetan)	56	50
Diru-laguntzekiko menpekotasuna (ehunekoetan)	39	42

(1) Kalkulua egiteko, 1999rako 3.417 biztanleko populazioa aintzat hartu da eta 2000rako 3.641 biztanleko populazioa, Udalak 2000rako eta 2001erako egindako estimazioei dagozkienak.

(2) Fiskalizatu gabeko ekitaldia

Datu horien azterketatik, honako hauek azpirarratu behar ditugu:

• 2000ko ekitaldiak aldaketa nabarmena erakusten du aurreko ekitaldiaren aldean; hain zuzen ere, 171 milioi pezetako superabita izatetik 87 milioi pezetako defizita izatera iragan baita. Egoera hori, funtsean, ondokoari zor zaio: 1999an dirusarreraren maila handia izan zen, inbertsio erreal eta transferentzien besterentzearen ondorioz, 179 eta 128 milioi pezeta hurrenez hurren.

• Biztanle bakoitzeko dirusarrerak ehuneko 27 jaitsi dira 2000n aurreko ekitaldiarekiko. Gastuek, ordea, ehuneko 21 egin dute gora, eta horrek ere justifikatzen du Udalak 2000ko ekitaldian izan duen defizita.

• Biztanle bakoitzeko finantza-zama nabarmen igo da, gastuen kapituluaren udalak banku entitateekin dauzkan kredituen mugak murrizteari dagozkion 16 milioi pezetako finantza-pasiboak jaso behar dituelako; beraz, 2000rako biztanle bakoitzeko finantza zama erreal 54 pezetakoa da.

• Biztanle bakoitzeko tributu bidezko dirusarrerak ehuneko 36 hazi dira 1999. urtekoan aldean, funtsean eraikin, instalazio eta obren gaineko zergak gora egin izanari.

• Udalak kredituen mugak murrizteari emaniko tratamenduaren ondorioz, zorpetze maila ehuneko 5 da 2000n; aurreko ekitaldian, ordea, ez zuen zorpetzerik izan.

- Aurrezki garbia 1999an ehuneko 27 izatetik 2000n ehuneko 32 izatera iragan da; horrek esan nahi du 2000ko ekitaldian Vianako Udala gauza izan dela baliabide korronteekin funtzionamendu gastuei eta finantza zamari aurre egiteko.

- Langileria-indizeak 5 puntu behera egin du, nahiz eta langileria- gastuek gora egin, langile gehiago kontratatu direlako. Behera egite hori zor zaio langile gastuek ehuneko txikiagoa egiteari aitorturiko obligazioen guztizkoan; egoera hori azaltzeko, kontuan hartu behar da inbertsio errealek gora egin dutela eta horrek isla argia duela inbertsioaren adierazlea gora egitean.

- Dirulaguntzekiko mendekotasunak behera egin du 2000n, funtsean kapital transferentziek behera egitearen ondorioz.

2000ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, milioika pezetatan adieraziko dugu ondoko adierazleen zenbatekoa:

Adierazleak	2000
Diruzaintza-gerakina	97
Epe luzerako zorra	8

Hau da, 2000n diruzaintza-gerakinak epe luze-ko zor gutzia hartzen du.

2000ko abenduaren 31ko epe luzeko zorra Ebroko Konfederazio Hidrografikoak 1994an emandako 11.900.000 pezetako mailegu bati dagokio –ubide bat gainjanzteko behar zen–; ehuneko 2ko korrituak sortzen ditu eta haren mugaguna 2013.

Lehen esan dugun bezala, Udalak epe luzeko zorraren egoera- balantzean 1997an finantza-entitate batekin sinaturiko lau kredituren erabilpen-mugak jaso ditu; guztira, 55 milioi pezeta egiten dute. Horietatik Udalak ez du inongo dirurik erabili 2000ko abenduaren 31ra arte. Aurrezki gordina 1999an 80 milioi pezetakoa izatetik 2000n 129 milioi pezetakoa izatera iragan da, funtsean eraikin, instalazio eta obren gaineko zergarengatik dirusarrerek gora egin dutelako.

Azkenik, jarraian agertzen dugun taulan konparaturik agertzen dira, hainbat ratori dagokionez, Vianako Udaleko 2000ko informazioa eta biztanle-

ria-tarte berekoak diren Nafarroako udalen 1998rako batez bestekoa<sup>1</sup>.

Ratioak	3.000-5.000 bikt. bitarteko udalak, 1998	Viana 2000
Gastu arrunta biztanle bakoitzeko (pezetatan)	74.385	62.526
Dirusarrera arrunta biztanle bakoitzeko (pezetatan)	89.915	97.956
Tributu bidezko dirusarrera biztanle bakoitzeko (pezetatan)	47.245	54.324
Zorpetze-muga (ehunekotan)	20	36
Zorpetze-maila (ehunekotan)	9	5
Zorpetze-ahalmena (ehunekotan)	11	31

Konparazio honen mugak gogoan izanik<sup>2</sup>, zeinak bereziki garrantzitsuak baitira Vianaren kasuan, honako hauek dira jakingarri behinenak:

- Vianan, biztanle bakoitzeko gastu arrunta nabarmenki baxuagoa da biztanleria-tarte bereko Nafarroako udalen batez bestekoa baino; biztanle bakoitzeko dirusarrera arruntak, berriz, handiagoak dira.

- Vianako biztanleengandik lortzen diren tributu bidezko dirusarrerak 7.000 pezeta handiagoak dira bere tarteko udalen batez bestekoa baino, baina 2000ko abaguneko egoera bat da, EIOZaren gaineko zerga (eraikin, instalazio eta obrak) dela-eta bildu denaren ondorioz.

- Vianako zorpetzearen muga eta ahalmena Nafarroako biztanle tarte bereko udalen batez bestekoa baino askoz ere handiagoak dira.

- Halaber Udalaren 2000ko zorpetze maila baxuagoa da Nafarroako biztanle tarte bereko udalen batez bestekoa baino.

### VI.3 GORABEHERAK

Udaleko Idazkaritzak eman digun informazioaren arabera, une honetan ez dago inongo auzi edo prozedurarik haren aurka, 2000n erator litezkeen pasibo garrantzitsurik sor dezakeenik.

### VI.4 ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xehekaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

(1) Datu hauek Toki Administrazioako Departamentuak emandakoak dira, eta ganbera honek Toki Sektore Publikoari buruzko 1998ko txostenean eman zituen argitara.

(2) Gogoraten dugu, bereziki, zerbitzu publikoak emateko modua eta kalitatea.

**VI.4.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea**

Erosketa-sisteman eginiko laginketan oinarrituz, honako gomendio orokor hau egin nahi dugu:

*Udalari aplikaturiko erosketa-prozedura idatziz garatzea, eta aholkularitza juridikoak nahiz udaleko kontu-hartzailetak araudiari jarraituz bete beharreko eginkizuna berariaz zehaztea.*

Zerbitzuen kontratazioari buruz eginiko lanean atzeman dezakegu munta txikiko zenbait zerbitzu-

ren prestazioei buruzko espedienterik ez dagoela; hori dela eta, adjudikazio prozesua idatziz jaso gabe dago.

*Kontratazioari buruzko araudia zorrozki aplikatzea dadila gomendatzen dugu.*

**VI.4.2. Inbertsioak**

Ondoko kontratazio espedienteak berrikusi dira, urte anitzeko haien egozpena zein den alde batera utzita:

(pezetak, milioitan)

Espedientea	Adjudikazio prozedura	2000ko gastua (*)	2000-12-31n metaturiko gastua	Obren exekuzioaren ehunekoa
Kirol eremua urbanizatzea	Negociado	31	63	51
Udal igerilekuak eraikitzea	Negociado	88	105	98
Futbol zelaiak, aldagelak eta eraikin soziala eraikitzea	Negociado	30	30	1
Industrialdea urbanizatzea	Negociado	75	75	Finalizado

(\*) Obraz gainera, teknikarien ordainsarien kostua ere jasotzen du, kasua bada

Berrikusitako espedienteek kapitulu honetako ekitaldiko obligazioen ehuneko 73 egiten dute.

Ondoren, ondorio eta iruzkin aipagarrienak azalduko ditugu:

a) Espedientea hauek berrikusi ondoren, ez dugu ikusi administrazio kontratazioa arautzen duten arau indardunen betetzean huts egiterik izan denik, ez eta espedienteen jarraipen administratiboan ere.

b) Hona berrikusitako espedientei buruzko alderdi aipagarrienak:

Kirol eremua urbanizatzea

Vianako udaleko kirol instalazioak eraikitzeko urbanizazio obrei dagokie.

Obra 144 milioi pezetatan adjudikatu zen 1999an, prozedura negoziatua erabiliz.

Udal igerilekuak eraikitzea

Obra 125 milioiren truke adjudikatu zen 1999an, iragarkirik gabeko prozedura negoziatua erabiliz. Prozedura horretara jotzeko arrazoia presako kontua izatea izan zen.

Futbol zelaiak, aldagelak eta eraikin soziala eraikitzea

Obra honen espedientea 1999an hasi zen; 182 milioi pezetaren truke adjudikatu zitzaion sozietate beari. Gero, 2000ko otsailaren 24ko Osoko Bilkurako aktak agertzen duenez, sozietate horrekin obrak egiteko kontratua hautsi zen, haren kaudimen gabeziaren ondorioz. Horren ondorioz, egiteko gelditzen den obra zatia lehiaketara ateratzeko erabakia hartu zen.

2000ko maiatzean, Udalak obra beste sozietate bati adjudikatzea erabaki zuen, iragarkirik gabeko prozedura negoziatua erabiliz, presako arrazoiengatik; 292 milioi pezetatan adjudikatu ziren lanak. 2000ko abuztuan hasiera eman zitzaion 2000ko ekainaren 15ean sinaturiko kontratua amaiarazteko espedienteari, obrak hasi gabe zeudelako eta sozietateak ordainketen etena deklaratu zuelako. 2000ko abuztuaren 28an, sozietate horrekiko kontratua amaiarazi zen, eta horren ondorioz jarritako bermea, 11,7 milioi pezetakoa, galdu egin zuen sozietateak.

Azkenik, 2000ko abuztuan egin gabe zegoen obra beste sozietate bati adjudikatu zitzaion, 305 milioi pezetatan, iragarkirik gabeko prozedura negoziatua erabiliz, presako arrazoiak zirela eta. 2001eko martxoan, unitate berriak sartzeko erabakia hartu zen, zuzendaritza teknikoak aurkeztutako txosten bati jarraituz. Unitate horiek 36 milioi pezetatan sozietate berari adjudikatu zitzaizkien.

Aipaturiko hiru obra hauek kirol instalazioen proiektu orokor baten barruan sartzen dira, eta 2000ko abenduaren 31n guztira adjudikatutako kopuruek 535 milioi pezeta egiten dute. Horietako 300 finantziatzeko, banku entitate batekin mailegua sinatu zen. 183 milioi, berriz, funts berekiekin finantzatu ziren; 50 milioi pezeta dirulaguntzen bitartez finantzatu ziren, eta, azkenik, 2 milioi pezeta diruzaintzako gerakinarekin finantzatu ziren.

Industrialdea urbanizatzea

Industrialdea eraikitzeke urbanizazio lanak dira.

Obra 75 milioi pezetatan adjudikatu zen 1999an, prozedura negoziatua erabiliz.

Obrak 2000ko ekitaldian bukatu dira, eta obra jasotzearen aktarik badagoela egiaztatu dugu.

Obra horiek, osorik, industrialdea kokatuta dagoen orubeen besterenduz finantzatu dira. 2000. urtean zehar, 45 milioi pezetako dirusarrerak izan dira kontzeptu hori zela eta.

Espediente horiek berrikusirik, ez dugu antze-man akatsik batere dagoenik administrazio kontratazioa arautzen duten arau indardunak betetzeari dagokionez, ez eta espediente horien jarraipen administratibo eta kontabilitatezkoan ere.

## VI.5 BESTELAKO KUDEAKETA-GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzari dagokionez, Kontuen Ganbararen aburuz Udalak bete behar dituen gomendio nagusiak bere antolaketa, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

Hainbat alderdiri dagokionez, aipatzen diren gomendioak ezarrira edo ezarpen-fasean daude 2001eko ekitaldian zehar.

### VI.5.1. Antolaketa orokorra

Inbertsio orokorren eta hirigintzaren arloetan berriki egindakoek udal jarduera areagotzea ekarri dute. Hori dela eta, ondokoei buruzko neurriak hartu behar ditugu:

- Udalaren egitura aztertzea, udal kudeaketaren beharretarako egokia den egiaztatzeko.
- Barne araubideari buruzko erregelamendu bat egitea, horren bidez Udaleko organo exekutiboen eskumenak definitu eta euren artean banatzeko.

- Kudeaketarako oinarriko prozedurak idatziz jarzea; exekuzio-fase bakoitza identifikatu behar da, eta bakoitzari erantzule bat esleitu behar zaio.

### VI.5.2. Inbentarioa-lbilgetua

Haxe gomendatzen dugu:

- *Prozedurak taxutu eta aplikatzea, udal inbentarioaren etengabeko eguneratzea eta hura kontabilitatearekin konektatua egotea lortzeko.*

- *Ibilgetuko dokumentazioa artxibatzeke eta altak nahiz bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

### VI.5.3. Diruzaintza

Haxe gomendatzen dugu:

- *Kutxako zenbaketak egin izana dokumentatzea, udal fondoan arduradunek sinatutako agirien bidez.*

- *Kutxako mugimenduak, udal fondoan ardura-dunak baimendu behar baititu, liburu osagarri batean jasotzea.*

### VI.5.4. Alderdi orokorrak

Haxe gomendatzen dugu:

- *Aurrekontuak eta plantilla organikoa legeriak ezarritako epeen barnean prestatu eta onestea, eta urtean urteko aurrekontuen likidazioa arinago egitea.*

- *Kontabilitate publikoko plan orokorrean eza-rritako urteko oroit-idazkia egitea.*

## VI.6. HIRIGINTZA

### VI.6.1. Alderdi orokorrak

Vianako Udalerako hirigintza arloan egun indarra duten arauak 1991n onetsitako arau subsidiarioa da.

Lehenbizi, esan behar dugu arau hori bat dato-rela hirigintza arloko egungo legeekin.

Gaur egun, Vianako Udala udal plana tramititzen ari da, udalean gertatu diren aldaketa garrantzitsuak direla eta.

### VI.6.2. Azterlan ekonomiko-finantzarioak/Jarduketa Programak

Udalak, gaur arte, ez du idatzizko azterlan ekonomiko-finantzariorik egin, ezta jarduketa-programen betetze-mailari buruzko jarraipen berrazkorik ere.

### **VI.6.3. Kontabilitatearen eta hirigintzaren arloko obligazioak**

Udalak ez du lurzorua eraldatu, eta formalki ere, ondare horretatik lorturiko baliabideak ez daude berariaz atxikirik ondarea gorde, mantendu eta handitzera. "Orubeen eta eraikinik gabeko lur-sailen erregistroa" ezarrita duen arren, erregistro hori ez dago eguneratuta.

#### **VI.6.4. Hirigintza-kudeaketa**

Udalak hirigintza-arloko teknikaririk ez dauka plantillan; halako teknikarien eginkizuna hirigintza-planeamenduaren kudeaketa eta izapidaketa teknikoak izaten da.

Aurreko iruzkinetatik honako gomendio hauek ondorioztatzen dira:

- *Ezarrirako izaera orokorreko hirigintza-obligazioak bete bitez.*
- *Azterlan ekonomiko-finantzarioen eta Jarduketa Programen betetze-mailari buruzko jarraipen egokia egin bedi.*

### **VI.7. EUROA SARTZEARI BURUZKO GOGOETAK.**

Udalak ongi ezagutzen ditu euroa sartzeak udal jarduerarako izan ditzakeen arriskuak.

Alderdi hau aplikazio informatikoen hornitzaileekin batera aztertzen ari da; beraz, Udalak uste du arrisku horretatik ez dela etorriko udal jardueran nabarmen eraginen lukeen egoerarik.

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2001eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

### **VIANAKO UDALAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK**

Viana Hiriko Udaleko alkate udalburu Gregorio Galilea Arazuri jaunak, haren izenean eta hura

ordezkatzuz, ganbera horren aurrean agertu eta, Zuzenbidean egokien den moduan, ondokoa dio:

Urriaren 11n udal honetako erregistro orokorrean sartu dela 2000. ekitaldiko Vianako Udalaren jarduerari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostena.

Txostenari buruz, emandako epean, ondoko alegazioak aurkeztu dituela, udalaren ordezkari gisa:

Alegazioak:

Lehenbizi. 13. orrialdean, langileei buruz ari dela, "hiru administrari laguntzaile" dioen lekuan "bi administrari laguntzaile" esan behar du.

Bigarren. Udal honek agertzeraz eman nahi du bere garaian UPN eta PSOE alderdiek udaletako kirol instalazioak finantzatzeari buruz sinatu zituzten aurrekontu-itunen ez betetzeak udalaren egoera ekonomikoa kaltetu duela.

Hori dela eta,

Eskatzen du, idatzi hau aurkezturik, aintzat har ditzazun Vianako Udalaren 2000. urteko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostenari aurkeztutako alegazioak.

Vianan, bi mila eta bateko urriaren hamaseian.

Alkatea: Gregorio Galilea Arazuri

### **VIANAKO UDALAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA**

Lehenbiziko alegazioaren erantzuna:

Administrari laguntzaileen datua zuzenduta ageri da txostenean.


Bigarren alegazioaren erantzuna:

Udal itunak dira horiek. Ganbera honek ezin die ezer gehitu behin betiko txostenean agertzen diren iruzkin osagarriak.

Iruñean, 2001eko azaroaren 9an.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde.

**I eranskina: Vianako Udalaren organigrama, 2000ko abenduaren 31ko plantilla organikoaren araber**



**II eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa**

- Diru-sarrereren betetze-maila =  $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila =  $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea =  $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea =  $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila =  $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga =  $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia =  $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea =  $\frac{\text{Langileen aitorturiko betebeharrak}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea =  $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna =  $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko =  $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko =  $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko =  $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko =  $\frac{\text{Tributu bidezko diru-sarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko =  $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$

## Mendabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 19an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Mendabiako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2001eko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### Mendabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

#### AURKIBIDEA

- I. Sarrera (16. or.).
- II. Helburua (16. or.).
- III. Norainokoa (17. or.).
- IV. Iritzia (17. or.).
  - IV.1. 2000ko aurrekontuaren likidazioa (17. or.)
  - IV.2. 2000ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (17. or.)
  - IV.3. Legezketasuna (17. or.)
  - IV.4. 2000ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa (17. or.)
- V. Finantzen egoera-orriak (18. or.).
- VI. Mendabiako Udalari buruzko iruzkin, ondorio eta gomendioak (21. or.).
  - VI.1. 2000ko aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (21. or.).
  - VI.2. 2000ko abenduaren 31ko finantza-egoera (22. or.).
  - VI.3. Gorabeherak (24. or.).
  - VI.4. Administrazio kontratazioa (24. or.).
  - VI.5. Bestelako kudeaketa-gomendioak (25. or.).
  - VI.6. Hirigintza (26. or.).
  - VI.7. Euroa sartzeari buruzko gogoetak (26. or.).
- I. eranskina: Mendabiako Udalaren organigrama, 2000ko abenduaren 31ko plantilla organikoaren arabera (27. or.).

II. Eranskina: Erabilitako adierazleen definizioa (28. or.).

#### I. SARRERA

Mendabia Estellerrian dago eta, 2000ko abenduaren 31n 3.587 biztanle dauzka.

Udalak ez du inongo erakunde autonomorik sortu bere lana garatzeko.

Mendabiako udala Jurramendiko Mankomunitatean sarturik dago; mankomunitate horrek bere gain hartzen ditu bai uraren ziklo integrala, bai hiri hondakin solidoen tratamendua ere.

Udalak bestelako mankomunitate eta udal-multzo hauetan hartzen du parte:

- Elizagorria, Mendabia, Sartaguda eta Sesma-ko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
- Goi Erriberako Kirol Mankomunitatea.

Ondoko taulan agertzen diren zenbatekoak izan dira 2000n Udalak izandako aipagarrienak:

(pezetak, milioitan)

Entitatea	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, abenduaren 31n
Udala	378	407	15

#### II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbarari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, fiskalizatu egin ditugu bai Mendabiako Udaleko kudeaketa ekonomiko-finantzarioa bai udal horren nahiz bere erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko gastu eta diru sarreraren aurrekontuen exekuzioa.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aipatutako legeak, Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak, administrazio-kontratazioari eta hirigintza-kudeaketari buruzko araudiak eta Nafarroako toki entitatei oro har aplikatzekoa den gaintzeko araudiak.

Txostenaren helburua honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea da:



a) Mendabiako Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2000-12-31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioaren legez-kotasun printzipioarekiko egokitzapena.

d) Udalaren finantza-egoera 2000ko abenduaren 31n.

Kontuen Ganbarak lehendik ez du sekula Mendabiako Udalaren kontuei buruzko fiskalizazio txostenik egin

### III. NORAINOKOA

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa-programari jarraikiz, Mendabiako Udalaren (aurrerantzean, "Udala") eta bere erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka, Toki kontabilitate publikoaren plan orokorrari jarraikiz. Plan hori egokitu da irailaren 21eko 271/1998 Foru Dekretura –Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontu egituraren alorrean garatzen duen horretara–, eta Nafarroako toki administrazioarako kontabilitate karraibide orokorra onetsi zuen irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretura.

Eginiko lanaren aztergai nagusia dirusarreraren eta gastuen kapitulu ekonomikoen eta ondare-masen berrikuspene izan da, eta antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolari dagozkien puntuak aztertu ditugu.

Hirigintza arloari dagokionez, planeamendua- ren betetzeari buruzko ikuskapen bat egin dugu eta haren aldaketak eta aurreikuspenen betetze- maila aztertu ditugu.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio printzipioei eta araei jarraituz eta, baldintzen arabera, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz egin dugu lana.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen antolaketa, barne kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak bildu ditu txostenak.

Azterketa lana 2001eko maiatzean eta ekainean egin dugu.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

### IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Mendabiako Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko finantzen egoera-orriak aztertu ditugu. Udalaren ardurapean eginak dira, eta txosten honetako V. atalean jaso ditugu, laburbilduta.

Gure berrikuspenean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatze-ko Batzordeak sektore publikoaren auditoretzarako onetsiriko arau eta prozedurak aplikatu ditugu.

Eginiko berrikuspenean oinarrituz, hona gure iritzia:

#### IV.1. 2000KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI DAGOKIONEZ

Honekin batera doan 2000ko aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orriak egoki agertzen du fiskalizaturiko ekitaldian Udalak eginiko eragiketa-multzoa.

#### IV.2. 2000KO ABENDUAREN 31KO ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

2000ko abenduaren 31ko egoera-balantzeak nahiko ongi agertzen du Udalaren ondare-egoera, salbu eta udal inbentarioari dagokionez: 1992koa da, nahiz eta 1999ko ekainaren 3an gaurkoturik dagoen.

#### IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa legez-kotasun printzipioari jarraikiz egin da, salbu eta administrazio kontratazioaren arloan, non azterturiko laginean, hari buruzko arauen zenbait ez-betetze formal antzeman baitira; txostenaren bukaeran, hari buruzko iruzkin batzuk egin ditugu.

#### IV.4. 2000KO ABENDUAREN 31KO EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA.

Mendabiako Udalak 2000ko abenduaren 31n agertzen duen finantza-egoerari buruz aipatzekoa da saneatua dela: 85 milioi pezetako diruzaintza-gerakina eta aurrezki gordin nabarmena du, ehuneko 21ekoa; guztira, 112 milioi pezetako zorrak dauka.

Laburbilduz, eta **ondorio orokor** gisa, hona gure gomendioak:

- Aurrekontu-kudeaketako barne kontroleko prozedurak indartu eta osatzea, arlo ezberdinetako eragiketak segurtatu eta bermatzeko, txosten honetan ezarritako gomendioei jarraituz.

- Kontratazioaren arloko arauak hertsiki betetzea, espedienteak formalizatzeari, obren jarraipenari eta aholkularitza juridikoaren parte-hartzeari dagokienez.

#### V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

Jarraian, Udalaren eta bere erakunde autonomoen finantzen egoera-orriak azalduko ditugu.

Azalpena eroso izan dadin, aipamena honako hauetara mugatuko dugu:

- Udalaren gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera.

- Udalaren gastuen aurrekontuaren likidazioa, sailkapen ekonomiko-funtzionalaren arabera.

- Udalaren 2000ko abenduaren 31ko egoera-balantzea.

- Udalaren 2000ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina.

#### Mendabiako Udala, 2000

##### Dirusarreraren aurrekontuaren betetzea

Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Kobratuta	Kobratzeke	Betetzearen %	Aitorturiko gutzitzaoren %
1- Zuzeneko zergak	83.024	-	83.024	84.781	510	79.516	5.265	102	21
2- Zeharkako zergak	10.000	-	10.000	17.704	106	14.993	2.711	177	4
3- Tasak eta bestelako dirusarrerak	36.835	1.032	37.867	34.660	208	32.266	2.394	92	9
4- Transferentzia arruntak	142.835	10.990	153.825	149.619	899	132.277	17.342	97	37
5- Ondare dirusarrerak	35.927	1.149	37.076	37.359	225	36.635	724	101	9
6- Inbertsio errealeen besterentzea	10.000	2.368	12.368	14.368	87	5.000	9.368	116	4
7- Kapital transferentziak	32.523	5.947	38.470	37.257	224	30.181	7.076	97	8
8- Finantza-aktiboaren aldaketa	-	21.744	21.744	-	-	-	-	-	-
9- Finantza-pasiboaren aldaketa	31.000	-	31.000	31.000	186	31.000	-	100	8
Dirusarrerak, guztira	382.144	43.230	425.374	406.748	2.445	361.868	44.880	96	100

##### Gastuen aurrekontuaren betetzea

Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko obligazioak	Ordainduta	Ordain-Betetzearen tzeke	Betetzearen %	Aitorturiko gutzitzaoren %
1- Langileen ordainsariak	117.759	(39)	117.720	107.702	647	106.544	1.158	91	29
2- Ondasun arrunt. eta zerb. eros.	100.734	2.181	102.915	97.751	588	83.938	13.813	95	26
3- Korrituak	2.369	-	2.369	1.247	7	79	1.168	53	-
4- Transferentzia arruntak	17.715	13.003	30.718	29.193	175	22.951	6.242	95	8
6- Inbertsio errealak	123.545	59.095	182.640	122.196	735	116.670	5.526	67	32
8- Finantza-aktiboaren aldaketa	3.600	-	3.600	3.521	21	3.521	-	98	1
9- Finantza-pasiboaren aldaketa	16.422	-	16.422	16.350	99	7.235	9.115	-	4
Gastuak, guztira	382.144	74.240	456.384	377.960	2.272	340.938	37.022	83	100

## Mendabiako Udala

2000ko aurrekontu betetzea, kode funtzional/ekonomikoaren ikuspegitik (pezetak, milakotan)

Funtzio-nala	Deskribapena	Ondasun					Aitorturiko		Ehunekoa, guztizkoaren gainean	
		Langileria-gastuak	arruntak eta zerbitzuak	Finantza-gastuak	Transferentzia arruntak	Inbertsio errealak	Finantza-pasiboak	Finantza-aktiboak		betebeharrak, guztira
01	Finantza-zama eta -administrazioa	-	-	1.245	-	-	-	16.350	17.595	5
11	Gobernu-organoak	2.706	1.800	-	-	406	-	-	4.912	1
12	Administrazio orokorra	16.601	13.837	-	163	2.079	-	-	32.680	9
22	Segurtasun eta babes zibila	14.269	268	-	-	-	-	-	14.537	4
31	Segurtasun eta babes soziala	48.919	1	-	6.964	774	-	-	56.657	15
41	Osasuna	-	1.816	-	-	-	-	-	1.816	-
42	Hezkuntza	2.912	7.455	-	-	-	-	-	10.367	3
43	Etxebizitza eta hirigintza	7.953	13.434	-	306	24.052	-	-	45.745	12
44	Komunitate-ongizatea	-	966	-	-	11.891	3.521	-	16.378	4
45	Kultura eta kirola	3.661	45.357	-	7.049	36.894	-	-	92.961	25
46	Beste. komunitate- eta gizarte-zerb.	-	-	-	14.140	-	-	-	14.140	4
53	Nekazaritza eta abeltzantzako oin. azpieg.	-	2.190	-	-	44.555	-	-	46.745	12
56	Industria sektoreko oinarriko azpiegiturak	-	-	-	-	450	-	-	450	-
58	Bienes y aprovechamientos comunales	10.681	8.183	-	571	1.095	-	-	20.530	5
61	Araupetze ekonomikoa	-	2.445	2	-	-	-	-	2.447	1
	Guztira	107.702	97.751	1.247	29.193	122.196	3.521	16.350	377.960	100

## 2000ko abenduaren-31ko balantzea

AKTIBOA	Kopurua, milakotan		PASIBOA	Kopurua, milakotan	
	pezetak	euroak		pezetak	euroak
IBILGETUA	1.215.849	7.308	ONDAREA	-	-
Ibilgegu materiala	840.542	5.051	Ondarea	-	-
Lurrak eta ondasun naturalak	67.205	404	Erabilera orokorrerako ondarea	-	-
Eraikinak	617.030	3.708			
Makineria, instalazioak eta tresneria	70.563	424	KAPITAL DIRULAGUNTZAK	103.304	621
Garraio-elementuak	9.462	57	Kapital dirulaguntzak	103.304	621
Altzariak	37.446	225			
Informazio-prozesuetarako ekipoa	8.548	51	EPE LUZEKO ZORRAK	90.975	547
Bestelako ibilgetu ez-materiala	6.457	39	Jasotako maileguak	90.975	547
Instalazio konplexu espezializatuak	11.179	67			
Ondare historiko artistikoa	12.652	76	EPE LABURREKO ZORRAK	47.051	283
			Aitorturiko betebeharrangatik hartzek.	-	-
Ibilgetu ez-materiala	4.264	26	Agindutako ordainketengatik hartzek.	39.087	235
Azterlana eta proiektuak	1.262	8	Entitate publikoak	2.927	18
Bestelako ibilgetu ez-materiala	3.002	18	Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzek.	5.037	30

AKTIBOA	Kopurua, milakotan		PASIBOA	Kopurua, milakotan	
	pezetak	euroak		pezetak	euroak
Erabilera orokorreko ondasun eta inbertsioak	371.003	2.230			
Erabilera orokorreko azpiegiturak	211.652	1.272			
Herri ondasunetako inbertsioak	159.351	958	Aplikatzeko dauden kontusailak	824.796	4.958
			Aplikatzeko dauden dirusarrerak	67	1
Finantza-ibilgetua	40	1	Aplikatzeko dauden bestelako kontusailak	824.796	4.957
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak	40	1			
			EMAITZAK	304.841	1.832
ZORDUNAK	58.934	354	Ekitaldiko emaitzak	340.841	1.832
Aitorturiko eskubideak	58.871	353			
Aurrekontuz kanpoko bestelako zordunak	63	1			
			ORDENA-KONTUAK	17.241	103
KONTU FINANTZARIOAK	96.251	578	Baloretako gordailu-egileak	17.241	103
Aldi baterako finantza-inbertsioak	10.562	62			
Kutxa	20	1			
Bankuak eta kreditu-erakundeak	85.669	515			
ORDENA-KONTUAK	17.241	104			
Gordailuko baloreak	17.241	104			
AKTIBOA, GUZTIRA	1.388.275	8.344	PASIBOA, GUZTIRA	1.388.275	8.344

## Mendabiako Udala

Diruzaintza-gerakin egoera, 2000-12-31n (pezetak, milakotan)

	Zenbatekoak
1 (+) Ekitaldi-bukaeran kobratzeke dauden zordunak	45.946
Diru-sarreraren-aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	44.880
Diru-sarreraren-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	13.992
DAurrekontuz kanpoko bestelako eragiketakoak	62
Ken kobratzen zailak diren saldoak	(12.988)
2 (-) Ekitaldi-bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak	(47.052)
Gastu-aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	(37.021)
Gastu-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	(2.067)
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketakoak	(7.964)
3 (+) Ekitaldiaren bukaeran diruzaintzan diren funts likidoak	85.688
4 Finantziazio atxikia duten gastuei atxikitako diruzaintza-gerakina	25.232
5 Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina (1 + 2 + 3 - 4)	59.350
Diruzaintza-gerakina, guztira	84.582

## VI. MENDABIAKO UDALARI BURUZKO IRUZKIN, ONDORIO ETA GOMENDIOAK

### VI.1 2000ko AURREKONTUAREN BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK

• Gastuen eta dirusarrerren 2000ko aurrekontuan 382 milioi pezetako hasierako kredituak daude. Hasierako aurreikuspen horiek hainbat aurrekontu-aldaketa jasan dituzte gastu eta dirusarreretan, ehuneko 74 eta 43 hurrenez hurren; funtsean, aurreko ekitaldiko diruzaintza gerakina gehitzeari eta 2000.eko ekitaldian jasotako dirulaguntzei zor zaizkio kopuru horiek.

Behin betiko aurreikuspenek edo aurrekontu bateratuak, horrenbestez, 456 milioi pezeta egiten dute gastuetan eta 425 milioi pezeta dirusarreretan.

• Aitorturiko obligazioek 378 milioi pezeta egiten dute, eta ehuneko 83ko betetze-maila dute; hori azaltzeko, kontuan hartu behar da, funtsean, inbertsio errealean kapituluaren betetze maila txikia –ehuneko 67– edo gauza bera dena, aurreikusita-koak baino 61 milioi pezeta gutxiago erabili direla.

Inbertsio errealean kapituluko desbideraketa hori, funtsean, ondoko arrazoiei zor zaie:

	Pezetak, milioitan
Arau subsidiarioetako 18. unitateko obra urbanizagarriak	5
Udal pilotalekuko teilatua	5
Aurri egoeran dauden eraikinak botatzea	12
Ikastetxea zaharberritzea	9
Besterik	30
<b>Guztira</b>	<b>61</b>

Obra horietako gehienak 2001ean egiten ari dira.

Ehunekoetan, honela xehekatzen da gastuen aurrekontua:

Gastuak	Ehunekoak
Funtzionamendua	63
Inbertsioa	32
Finantza-zama	5
<b>Guztira</b>	<b>100</b>

Langileez denaz bezainbatean, 2000ko abenduaren 31n 22 langile ziren Udalean zihardutenak. Hona:

Izaera	Kopurua
Funtzionarioak	9

Lan-kontratudun finkoak Behin-behinekoak eta programak	6
<b>Guztira</b>	<b>15</b>

Administrazio eta kontabilitatearen arloan 4 pertsona ari dira lanean: idazkari bat, kontu-hartzaile bat eta bi administrari ofizial.

• Aitorturiko eskubideei dagokienez, 407 milioi pezetakoak dira. Betetze-maila ehuneko 96koa da.

Dirusarrerren osaera, ehunekoetan, hauxe da:

Dirusarrerak	Ehunekoak
Tributu bidezkoak	34
Transferentzien bidezkoak	46
Ondarearen ondoriozkoak	12
Dirusarrera finantzarioak	8
<b>Guztira</b>	<b>100</b>

Hau da, 2000ko aurrekontuko finantza-iturri nagusia transferentzien bidezko dirusarrerekin osaturikoa da: aitorturiko 100 pezeta bakoitzeko, 46 pezeta finantza-iturri horretatik heltzen dira. Transferentzien bidezko dirusarrerekin, berriz, ehuneko 34 egiten dute.

Azpiarratzekoa da, gainera, Udalaren dirusarrerren ehuneko 8 2000an finantza entitate batek makineria erosteko emandako 31 milioi pezetako kreditu batetik datozela.

2000ko abenduaren 31n, kreditu hori erabili gabe zegoen. Hala eta guztiz ere, Udalak kreditu hori kobratutakoa bezala hartu du, diruzaintzan kopuru hori gehituz; hori dela eta, jasotako kobrantzen kopurua eta diruzaintzako kopurua, une honetan, 31 milioi pezetatan gainbalioturik daude.

Ondoko taulan agertzen dira tributu-figura nagusiak eta horiek 2000n daukaten zenbateko aitortua (pezetak, milioitan):

Tributu-figura	Zenbatekoa
Zuzeneko zergak	85
Hirilur kontribuzioa	37
Landalur kontribuzioa	15
Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga	10
Lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	5
Ilbilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga	18
Zeharkako zergak	18

Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga 18

Aipatzekoa da hirulur kontribuzioak daukan garrantzi berezia, gainontzeko tributu-figurena baino handiagoa baita, alde handiz.

Udalak ordainarazitako zergei dagokienez, jarraian agertzen da, zerga-moten arabera, zein diren Udalak aplikaturiko tarifak, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak baimentzen dituen gehiengo kopuruekin alderatuta:

Tributu-figura	Ehuneko/Indizea	
	Udala	Toki Ogasunei buruzko Legea
Hirilur kontribuzioa	0,255	0,10 - 0,50
Landalur kontribuzioa	0,750	0,10 - 0,80
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1	1 - 1,4
Lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	10	8 - 20
• 5 urte bitartean	2,2	2,2 - 3,3
• 10 urte bitartean	2,1	2,1 - 3,2
• 15 urte bitartean	2,0	2,0 - 3,1
• 20 urte bitartean	2,0	2,0 - 3,1
Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga	2	2 - 5

Udalak ez ditu ordainarazten luxuzko gastuen gaineko zergak, ezta etxebizitza hutsen gainekoak ere; izan ere, gaur egungo legeriaren arabera, horiek aukerakoak dira toki entitatearentzat.

• 2000ko betetze-egoerak 29 milioi pezetako aurrekontu-superabita agertzen du, aitorturiko eskubideen eta obligazioen arteko aldearen ondorioz. Saldo horri diruzaintzako gerakin likidoa erabiliz finantzatzutako gastuen ondorioz egin beharreko doikuntzak egiten baldin bazaizkio, 2000ko ekitaldiko aurrekontu-emaizta 78 milioi pezetako superabitekoa da.

• 2000ko abenduaren 31n ordaintzeke dauden kopuruak –gastuen erresultak– 39 milioi pezetakoak dira, eta, horietatik, 2 milioi pezeta aurreko ekitaldietatik datoz. Kobratzeke dauden kopuruek –dirusarreraren erresultak– guztira 59 milioi pezetako zenbatekoa egiten dute, eta ehuneko 24ren jatorria aurreragoko ekitaldietan dago.

• 2000ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina 85 milioi pezetakoa da, eta honako hauen emaitza da: ordaintzeke dauden 47 milioi pezetako zorrak, kobratzeko dauden 46 milioi pezetako dirusarrerak eta 86 milioi pezetako fondo likidoak. Aurreko ekitaldietatik kobratzeke dauden 14 milioi pezetetatik 13 milioi pezeta kobratzen zailtzen

dira. Hona udalean aurreko ekitaldietako saldoak kobratzen zailtzen sailkatzeko jarraitzen den irizpidea:

Zorraren antzintasuna	Dotazioaren ehunekoak
1998 eta aurrekoak	100
1999	50

Azken irizpide hori bereganatzeko, Udalak berantiarrei birkobratzeko prozesuan izandako esperientzia hartu da kontuan; lan hori agenzia exekutibo batek egiten du.

Azpimarratzekoa da 85 milioi pezetako diruzaintza gerakina honela banatuta dagoela: finantzaketa atxikia duten gastuei atxikitako gerakina, 25 milioi pezetakoa, eta gastu orokorrei atxikitako gerakina, 60 milioi pezetakoa.

• Azkenik, hurrengo taulan erakusten da, ehunekoetan, 2000ko gastu-aurrekontuaren betetzea, eginkizunen arabera xehekatutik:

Deskribapena	Ehunekoak
Finantza zama eta administrazioa	5
Gobernu organoak	1
Administrazio orokorra	9
Segurtasun eta babes zibila	4
Segurtasun eta babes soziala	15
Hezkuntza	3
Etxebizitza eta hirigintza	12
Komunitate-ongizatea	4
Kultura eta kirola	25
Komunitate eta gizarte arloko bestelako zerbitzuak	4
Nekazaritza arloko oinarrizko azpiegiturak	12
Ondasun eta aprobetxamendu komunalak	5
Araubide ekonomikoa	1
Guztira	100

Datu horiei buruzko azterketatik, azpimarratzekoa da Udalak 2000rako aurreikusitako gastuaren ia ehuneko 64 etxebizitza eta hirigintza, nekazaritza arloko oinarrizko azpiegiturak, gizarte segurtasun eta babes eta kultura eta kirola atalekoak direla.

#### VI.2 2000ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA.

2000n, Udalak honako ratio edo adierazleak dauka, aurreko ekitaldiko datuekin alderatuta:

Adierazleak	2000 <sup>(1)</sup>	1999 <sup>(2)</sup>
Aurrekontu-superabita (pezetak, milioitan)	29	(61)

Dirusarrerak biztanle bakoitzeko (pezetatan)	113.395	98.421
Gastuak biztanle bakoitzeko (pezetatan)	105.369	115.456
Finantza-zama biztanle bakoitzeko (pezetatan)	5.887	5.365
Tributuen bidezko dirusarrerak biztanle bakoitzeko (pezetatan)	38.234	33.926
Kobrانتzen betetzea (ehunekoetan)	89	93
Ordaintzen betetzea (ehunekoetan)	90	93
Zorpetze-maila (ehunekoetan)	7	7
Zorpetze-muga (ehunekoetan)	28	31
Aurrezki garbia (ehunekoetan)	21	24
Langileria-indizea (ehunekoetan)	28	24
Inbertsio-indizea (ehunekoetan)	32	48
Diru-laguntzekiko menpekotasuna (ehunekoetan) <sup>46</sup>		56

(1) Kalkulua egiteko, 1999rako 3.595 biztanleko populazioa aintzat hartu da eta 2000rako 3.587 biztanleko populazioa, 2000ko abenduaren 31ko udal erroldatik hartuta.

(2) Fiskalizatu gabeko ekitaldia

Datu horien azterketatik, honako hauek azpimarratu behar ditugu:

- 2000ko ekitaldiak aldaketa nabarmena erakusten du aurreko ekitaldiaren aldean; hain zuzen ere, 61 milioi pezetako defizita izatetik 29 milioi pezetako superabita izatera iragan baita. Egoera hori, funtsean, ondokoari zor zaio: ekitaldi honetan transferentzia arruntengatik eta inbertsio errealean besterentzearengatik maila dirusarrera asko izan dira, hain zuzen ere 35 milioi pezeta gehiago 1999an baino.

- Biztanle bakoitzeko dirusarrerak ehuneko 15 igo dira 2000n aurreko ekitaldiarekiko. Gastuek, ordea, ehuneko 9 egin dute behera, eta horrek ere ager lezake superabitaren handitzea.

- Biztanle bakoitzeko finantza-zama ehuneko 10 igo da, neurri batean biztanleen kopurua jaitsi delako, korritu-tasak igo direlako eta bi maileguren ezaldia bukatu delako.

- Biztanle bakoitzeko tributu bidezko dirusarrerak ehuneko 13 hazi dira; inbertsio gastuek, berriz, ehuneko 16 egin dute behera. Azkenik, langileria gastuak ehuneko 4 hazi dira.

- Langileria-indizeak gora egin du, langile berriak kontratatzearen ondorioz langile gastuek gora egin dutelako. Bestalde, langile gastuek ehuneko handiagoa egiten dute inbertsio errealek

behera egin dutelako; horrek isla argia du inbertsioaren adierazlea behera egitean.

- Dirulaguntzekiko mendekotasunak eta aurrezki garbiak pixka bat behera egin dute, funtzionamendu gastuek dirusarrera arruntek baino gehiago hazi direlako.

- Dirulaguntzekiko mendekotasunaren ratioa asko jaitsi da gainerako dirusarrerak nabarmen gora egin dutelako, transferentziak, aurreko ekitaldiaren aldean, gutxiago hazi diren bitartean.

2000ko abenduaren 31ko finantza egoerari buruz, esan behar dugu diruzaintza gerakinak gora egin duela, beste behin -85 milioi pezeta egin du gora.

Lehen esan dugun bezala, diruzaintzako gerakinaren kopuruak gastu orokorretarako gerakin bat biltzen du, 60 milioi pezetako saldo positibo bat duena; horrek, aurrezkiaren ratioarekin eta zorpetze mugaren jaistearekin batera, finantza egoera guztiz saneatuta dagoela esan nahi du, eta Udalak egiturazko baliabide garbiekin ekin ahal izanen diela etorkizuneko inbertsioei

Azkenik, jarraian agertzen dugun taulan konparaturik agertzen dira, hainbat ratori dagokionez, Mendabiako Udaleko 2000ko informazioa eta biztanleria-tarte berekoak diren Nafarroako udalen 1998rako batez bestekoa<sup>3</sup>.

Ratioak	3.000-5.000 bizi. bitarteko udalak, 1998	Mendabia 2000
Gastu arrunta biztanle bakoitzeko(pezetatan)	74.385	105.369
Dirusarrera arrunta biztanle bakoitzeko (pezetatan)	89.915	113.395
Tributu bidezko dirusarrera biztanle bakoitzeko (pezetatan)	47.245	38.234
Zorpetze-muga (ehunekoetan)	20	28
Zorpetze-maila (ehunekoetan)	9	7
Zorpetze-ahalmena (ehunekoetan)	11	21

Konparazio honen mugak gogoan izanik<sup>4</sup>, honako hauek dira jakingarri behinenak:

- Mendabian, biztanle bakoitzeko gastu arrunta nabarmenki altuagoa da, ehuneko 42, biztanleria-tarte bereko Nafarroako udalen batez bestekoa baino; biztanle bakoitzeko dirusarrera arruntak, berriz, handiagoak dira, ehuneko 26.

(3) Datu hauek Toki Administrazioako Departamentuak emandakoak dira, eta ganbera honek Toki Sektore Publikoari buruzko 1998ko txostenean eman zituen argitara.

(4) Gogoraten dugu, bereziki, zerbitzu publikoak emateko modua eta kalitatea.

- Mendabiako biztanleengandik lortzen diren tributu bidezko dirusarrerak batez bestekoa baino ehuneko 19 txikiagoak dira.

- Zorpetzearen muga eta ahalmena Nafarroako biztanle tarte bereko udalen batez bestekoa baino handiagoa da.

### VI.3 GORABEHERAK

Udalak eman digun informazioaren arabera, honakoak dira une honetan ebazteko dauden errekurtsu nagusiak:

a) 2000ko ekainaren 5eko Nafarroako Administrazio Auzitegiko erabakiaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsua, partikular batek alorrean izaniko kalteen ordainari buruzko 1999ko apirilaren 13ko alkatetzaren erabakiaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsua ebatzi zuena.

b) Herrilurretako alor bateko kalteen ordaina ezetsi zuen 1998ko irailaren 24ko alkatetzaren erabakiaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsua.

### VI.4 ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xehekatu agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

#### VI.4.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Erosketa-sisteman eginiko laginketan oinarrituz, honako gomendio orokor hau egin nahi dugu:

a) *Udalari aplikaturiko erosketa-prozedura ida-tziz garatzea, eta aholkularitza juridikoak nahiz udaleko kontu-hartzaitzak araudiari jarraituz bete beharreko eginkizuna berariaz zehaztea.*

b) *Saiatzea ekitaldi bakoitzak ekitaldi berean sortutako gastuei euts diezaien.*

c) *Denboran errepikatzen diren gastuak daukaten zerbitzuak (monitoreak eta kirol kudeaketa-ko zerbitzuak kontratatzea) lehiaketa publikoaz kontratatzeko ahaleginak egitea.*

d) *Kontratazioari buruzko araudia zorrozki aplikatzea.*

#### VI.4.2. Inbertsioak

Ondoko kontratazio espedienteak berrikusi dira, urte anitzeko haien egozpena alde batera utzita:

Espedientea	Adjudikazio prozedura	2000ko gastua (*) (pezetak, milioitan)
Abeltzaintzako poligonoa elektrifikatzea	Lehiaketa	5
Pilotalekuko teilatua	Lehiaketa	14
Makineria erostea	Lehiaketa	27
Futbol zelaia egokitzea	Zuzena	9
Kaleak asfaltatzea	Negoziatua	7
Aurri egoeran dauden eraikinak botatzea	Negoziatua	6

(\*) Obraz gainera, teknikarien ordainsarien kostua ere jasotzen du, kasua bada

Berrikusitako espedienteek kapitulu honetako ekitaldiko obligazioen ehuneko 56 egiten dute.

Ondoren, ondorio eta iruzkin aipagarrienak azalduko ditugu:

a) Berraztertutako kontratazio espedienteetako akats ohikoena zera izan da: tramitazio arrazoizkoa izan badute ere, batzuetan txosten juridikoak, kontu-hartzaitzakoak edo behin betiko adjudikazioaren NAOko argitalpena falta dira.

b) Hona berrikusitako espedientei buruzko alderdi aipagarrienak:

Abeltzaintzako poligonoa elektrifikatzea

- Obra hau adjudikatze espedientea 1998koa da. Behin betiko adjudikazioa, berriz, 1999ko ekainean izan zen, 14 milioi pezetatan. Hala ere, obraren hasiera behin eta berriz atzeratzen joan da, eta ekitaldi honetan hasi da. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza batekin finan-



tzatzen ari dira lanak; Udalak ere obraren ehuneko 10 ordainduko du; gainerakoa poligonoko titularren ekarpenekin ordainduko da, betiere 2000n eta 2001ean adjudikatutako metro koadroen arabera.

- Krediturik egonda ere, kontu-hartzaitzaren kreditu-erreserbari buruzko txostena falta da.

- Espedientean ez da ageri idazkaritzak klausula administratiboen plegua edo/eta baldintza teknikoak onetsi dituen.

- Adjudikazioaren iragarkia ez da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman.

#### Pilotalekuko teilatua

- -Espedientea 1998an hasi zen eta obrak 1999ko otsailean adjudikatu ziren (31 milioi pezeza). Obra hori 2000n bukatu da.

- Kreditua egonda ere, espedientean ez da erreserbari buruzko txostenik ageri (Kontu-hartzaitzarena), ez eta klausula administratiboen edo baldintza teknikoaren plegua onesteko alde aurretik txostenik ere.

- Obra hau Nafarroako Kirol Institutuaren dirulaguntzekin eta Udalaren beraren diru-baliabideekin finantzatu da.

#### Makineria erostea

- 2000n, udalak nekazaritzarako traktore bat, kale-garbigailu bat eta nekazaritzarako arrabola bat erosi ditu, 11, 9 eta 7 milioi ordainduta, hurrenez hurren; adjudikazio bakoitzerako lehiaketa irekia egin da.

- Klausula administratiboen pleguak arau indardunen arabera badira ere, espedientean ez da ageri ez txosten juridikoa, ez Nafarroako Aldizkari Ofizialeko adjudikazioaren argitalpena ere.

#### Futbol zelaia egokitzea

Obraren zuzenean adjudikatu zen, Osoko Bilkuraren erabakiz, proiektua aurkeztu zuen enpresari.

#### Kaleak asfaltatzea

- Obra hau 1999an adjudikatu zen, prozedura negoziatua erabiliz, prentsan iragarri gabe; dena den, 2000. urtera arte ez ziren hasi lanak, eta urte hartako aurrekontuan sartu ziren.

- Dokumentazioaren gainerakoa espedientean ageri da, salbu eta pleguei buruzko idazkaritzaren alde aurretiko txostenak.

- Udaleko idazkariak ohartarazi zuen legea urratzen ari zela, prentsan eta NAO-n argitaratu behar baitzen.

Aurri egoeran dauden eraikinak botatzea

- Espedientea 2000n hasi zen, eta prozedura negoziatuaz, prentsan iragarrita, adjudikatu zen.

- Klausula administratiboen pleguak arau indardunen arabera badira ere, espedientean ez da behar den txosten juridikoa jaso.

Horrenbestez, aztertutako espedienteen laginari buruzko laburpen orokor gisa, Ganbera honek honakoak gomendatzen dizkio Udalari:

- *Zorrozkiki betetzea administrazio-kontratazioari buruzko araudia; batez ere, kontratazio-espedienteen formalizazioari dagokionez.*

- *Espedienteak artxibatu eta kontrolatzeko sistema hobetzea.*

## VI.5 BESTELAKO KUDEAKETA-GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzari dagokionez, Kontuen Ganbararen aburuz Udalak bete behar dituen gomendio nagusiak bere antolaketa, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

Hainbat alderdiri dagokionez, aipatzen diren gomendioak ezarrita edo ezarpen-fasean daude 2001eko ekitaldian zehar.

### VI.5.1. Antolaketa orokorra

Inbertsio orokorren eta hirigintzaren arloetan berriki egindakoek udal jarduera areagotzea ekarri dute. Hori dela eta, ondokoei buruzko neurriak hartu behar ditugu:

- *Udalaren egitura aztertzea, udal kudeaketa -ren beharretarako egokia den egiaztatzea.*

- *Barne araubideari buruzko erregelamendu bat egitea, horren bidez Udaleko organo exekutiboaren eskumenak definitu eta euren artean banatzeko.*

- *Kudeaketarako oinarrizko prozedurak idatziz jartzea; exekuzio-fase bakoitza identifikatu behar da, eta bakoitzari erantzule bat esleitu behar zaio.*

### VI.5.2. Inbentarioa-lbilgetua

Hauxe gomendatzen dugu:

- *Udal ondasunak –bai jabari publikokoak, bai ondarekoak– eskrituratzeko eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

- *Udal inbentarioa, 1992koa baita, gaurkotu eta onestea. Udalak 1999ko uztailearen 3an gaurkotu zuen.*

- *Altak, bajak eta ibilgetuko dokumentazioa artxibatzekeo prozedurak definitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpi - deei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, Udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

### VI.5.3. Langileak

Aldi baterako kontratazioetan, behar diren lan deialdiak ez direla egiten antzeman dugu.

*Langileen kontratazioari eta lege fiskalei dago - kienez, lege indardunak betetzea gomendatzen dugu; halaber, langile bakoitzaren egoerari buruz - ko espedienteak gaurkoturik edukitzea gomenda - tzen dugu.*

### VI.5.4. Diruzaintza

Hauxe gomendatzen dugu:

- *Kutxako zenbaketak egin izana dokumenta - tzea, udal fondoan arduradunek sinatutako agirien bidez.*

- *Kutxako funts finko bat ezartzea eta haren berrezarpenak udal funtsen arduradun berak bai - mentzea.*

- *Ahal den neurrian, kutxa kontrolatzen duen pertsonaren eta kutxa kontabilizatzen duen per - tsonaren eginkizunen bereizkuntza egokia egitea.*

## VI.6. HIRIGINTZA

### VI.6.1. Alderdi orokorrak

1994ko abenduan, Mendabiako Udalak Hirigin - tza Planeamenduko Arau Subsidiarioen proiektua aurkeztu zuen Lurraldearen Antolamenduko Batzordean, behin betiko onetsi zitzaizkion.

Hasiera batez 1994ko martxoaren 18an onetsi ziren, eta jendaurrean egon ondoren, 1994ko abenduaren 28an eman zitzaizkion behin-behineko onepena.

Akats batzuk zeudela eta, 1996ko apirilaren 2ra arte ez zen behin betikoz onetsi. 1996ko maiatzaren 13ko NAOan argitaratu ziren.

Arau subsidiarioak eskualdeko beharrak ase - tzekeo aski ez zirenez, Udalak egoki jo zuen udal plan bat egitea, arau indardunei egokitua, gara - pen eremuak, eremu berdeak, ekipamenduetara - ko eremuak, azpiegiturak eta abar zehazteko.

Udalak 2000ko azaroaren 30eko bilkura arrun - tean, Mendabiako udal planaren aurrerapena one -

tsi zuen, eta jendaurrean jarri zuen. Bitartean, udal plana onetsi artean etenda dago udalerrri osoan lizentziak ematea.

Udal plana, udalak zeuzkan gabeziei aurre egi - teaz gainera, Goi Erriberako eskualdeko hirigintza arauekin koordinatuko da; azken arau horiek pres - tatzan ari dira oraindik.

Arau subsidiarioen arabera, Mendabiako uda - lerrriak 2.293 hektarea hartzen ditu.

### VI.6.2. Azterlan ekonomiko-finantzarioak/ Jarduketa Programak

Udalak, gaur arte, ez du idatzizko azterlan ekonomiko-finantzariorik egin, ezta jarduketa-pro - gramen betetze-mailari buruzko jarraipen bera - riazkorik ere.

### VI.6.3. Kontabilitatearen eta hirigintzaren arloko obligazioak

Udalak ez du lurzoruaren udal ondarea eratu, eta formalki ere, ondare horretatik lorturiko baliabi - deak ez daude berariaz atxikirik ondarea gorde, mantendu eta handitzera.

### VI.6.4. Hirigintza-kudeaketa

Udalak hirigintza-arloko teknikaririk ez dauka plantillan. Hirigintza planeamenduaren kudeaketa eta tramitazio teknikoak kanpoko aholkulari batekin kontratatu dira 2000n.

Aurreko iruzkinetatik honako gomendio hauek ondorioztatzen dira:

- *Ezarritako izaera orokorreko hirigintza-obliga - zioak bete bitez.*

- *Jarduketa Programen betetze-mailari buruz - ko jarraipen egokia egitea eta jarduketa programei buruzko azterlan ekonomiko-finantzarioak egin bitez.*

## VI.7. EUROA SARTZEARI BURUZKO GOGO - ETAK.

Udalak ongi ezagutzen ditu euroa sartzeak udal jarduerarako izan ditzakeen arriskuak.


Alderdi hau aplikazio informatikoen hornitzaile - arekin batera aztertzen ari da; beraz, Udalak uste du arrisku horretatik ez dela etorriko udal jardue - ran nabarmen eraginene lukeen egoerarik.

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurrei - kusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2001eko azaroaren 13an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**I eranskina. Mendabiako Udalaren organigrama, 2000ko abenduaren 31ko plantilla organikoaren arabera**



**II eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa**

- Diru-sarrereren betetze-maila =  $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila =  $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea =  $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea =  $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila =  $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga =  $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia =  $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea =  $\frac{\text{Langileen aitorturiko betebeharrak}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea =  $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna =  $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko =  $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko =  $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko =  $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko =  $\frac{\text{Tributu bidezko diru-sarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko =  $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$